

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014

LEHENDAKARITZA

1. Akitania-Euskadi Euroeskualdeak dei egiten dituen laguntzen programarako Eusko Jaurlaritzaren ekarpena. 2014ko ekitaldia
2. Kanpo Harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko bekak
3. Gobernu Irekia / Open Government arloko profesionalak espezializatu eta prestatzeko bekak.
4. Euskal Gizartearen Egoera saria.
5. 2014.urteko Euskal Etxe eta Euskal Etxeen Federazioetarako diru laguntzak
6. 2014ean Kanpoan den Euskal Komunitateko kide diren pertsonen asistentziazko eta egoera larriko beharrezko erantzuteko laguntza ekonomikoak.
7. Gaztemundu 2014.
8. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak.
9. Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzak.
10. Terrorismoaren biktimei arreta eta babesa ematea bultzatzen duten erakundeentzako diru-laguntzak
11. Elkarrekin Bonuen programa.
12. Diru-laguntzak bakearen, bizikidetzaren eta giza-eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte-mugimenduei
13. Terrorismoaren Biktimentzako laguntzen programa diruz laguntzea.



1.- Izenburua

Akitania-Euskadi Euroeskualdeak dei egiten dituen laguntzen programarako Eusko Jaurlaritzaren ekarpena. 2014ko Ekitaldia

2.- Araua

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 1082/2006 ERREGELAMENDUA (EE) Lurralde Lankidetzaren Europako Taldeari (LLET) buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1302/2013 ERREGELAMENDUAK (EE) Lurralde Lankidetzaren Europako Taldeari buruzkoak (LLET) aldatutakoa, talde horien sorrera eta funtzionamendua argitu, sinplifikatu eta hobetzeari buruzkoaren inguruan.

LLETen hitzarmena EAEn eta Akitaniako Eskualdearen artean, 2011ko abenduaren 12an izenpetutako "Akitania-Euskadi Euroeskualdea" Lurralde Lankidetzaren Europako Taldea osatzeko.

"Akitania-Euskadi Euroeskualdea" Lurralde Lankidetzaren Europako Taldearen estatutuak, 2011ko abenduaren 12an izenpetutakoak

Lurralde Politikako eta Administrazio Publikoko 2011ko irailaren 23ko akordioa, Eusko Jaurlaritzak "Akitania-Euskadi Euroeskualdea" Lurralde Lankidetzaren Europako Taldean parte hartzeko baimena emateko.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honek mugaz gaindiko lankidetzak argi azaltzen duten proiektuei ematen die laguntzak, mugatik bi aldetara kokatuta dauden eragileei, bereziki. Gutxienez bazkide bat egon behar du Euskal Herrian eta beste bat Akitanian.

Helburu orokorra, bi eskualdeen eragileen arteko jarduerak elkarrekin bultzatzea eta era berean Euroeskualdean enplegua sortu eta garapen ekonomikoa garatzea da. Beste lankidetzak batzuen artean, 2014ko abenduaren 19an onartu zen Plan Estrategikoan jasotzen den bezala.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an, mugaz gaindiko proiektuen 42 eskaera jaso ziren finantzazioa lortzeko helburuarekin. Euroeskualdeak aukeraketa egiteko ahalegin handia egin behar izan zuen, 17 proiekturi diru laguntza emanez, batez ere laguntza hauen izaera mugatua dela eta, 300.000 €-takoa hain zuzen eta horretan oinarritzen zen esparrua Kulturarena, Hizkuntzarena eta Mugaz Gaindiko Hiritargoarena zela ikusirik. Proiektu bakoitzeko batez besteko diru kopurua 17.640 euro inguru izaten dira.

Aurkeztutako proiektuen aukeraketan, laguntzaren hartzaille diren proiektuen artean zenbait aspektu nagusitu dira. Besteak beste:

- Hizkuntza eta Kulturaren alorrean proiektu berritzaileen apustu argia.
- Ekintza kulturalak, dantza, musika... Helburua esperientzien, gaitasunen eta ezagutzen hartu-
emana sustatzea da.
- Hiru hizkuntzen sustatzea.

Guzti honekin, lankidetzaren oinarri sendoa eraikitzea lortzea da, mugaren bi aldeetako entitate eta erakunde publiko-pribatuen arteko lankidetzaren iraunkorreko sare bat garatzea lortzeko.

Akitania-Euskadi Euroeskualdeko diru-laguntzen programaz gain, beste jardueren batzuk baita burutu dira eta LLET honetako 2014 urteko jardueren zati handi bat bete zuten. Horrela, Plan Estrategikoa lantzea adibidez, lan-programa bihurtu zen.

1.- Izenburua

Kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko bekak

2.- Araua

171/2011 DEKRETUA, uztailaren 26koa, kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko bekak arautzeko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

- Beka hauek kanpo harremanen eremuan orokorrean profesionalak espezializatzeraz eta prestatzeraz zuzenduta daude.
- Helburua Euskal Autonomia Erkidegoan kanpo harremanen arloko espezialista talde bat eratzea da.
- Bekak hogeita hamar urte baino gehiago eta goi-mailako unibertsitate titulua daukaten pertsonen zuzenduta daude.
- Beka hauen pertsona onuradunak Euskadin espezializatu eta prestatu ahalko dira, baita Eusko Jaurlaritzak kanpoan dituen ordezkarietan edota ordezkariak horiei atxikitako bulegoetan ere.
- Bekek hamabi hilabete iraungo dute.
- 8 beken deialdia, 4 Vitoria-Gasteizen burutuko dira, 2 Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzan, Bruselan, 1 Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzan, eta 1 Euskadiren Txileko Ordezkaritzan.
- Zenbait urtetarako plana, aurrekontua: 160.000 euro.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- 8 beken deialdia egin zen, horiek hamabi hilabeteko iraupena izan zuten.
- Kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeraz
- Euskal Autonomia Erkidegoan kanpo harremanen arloko espezialista talde bat eratzea.

1.- Izenburua

Gobernu Irekia / Open Government arloko profesionalak espezializatu eta prestatzeko bekak

2.- Araua

Maiatzaren 20ko 78/2014 Dekretua

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa honen helburua izan da formazioa eta espezializazioa Gobernu Irekia, partaidetza eta kazetaritza digitalaren arloetan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Bekak hainbat urtetarako dira. Hasiera 2014ko azaroan izan zen eta 2015eko hilabete berean bukatuko dute. Hori dela eta, oraindik ezin dira emaitzak aztertu.

1.- Izenburua

EUSKAL GIZARTEAREN EGOERA SARIA

2.- Araua

Ekainaren 11ko 137/1996 Dekretua
Ekainaren 24ko 135/2003 Dekretua
2014ko ekainaren 25eko 2855 Erabakia
2014ko irailaren 26ko 4150 Ebazpena
2014ko azaroaren 18ko 5033 Erabakia

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Gizartearen Egoera Sariak Euskadiko egoera soziopolitikoaren ezagutze eta errealitate horren ikerketa teorikoki edo metodologikoki garatzen lagunduko duten gaien inguruko azterlanak eta ikerlanak saritzen ditu.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Hamabi lan aurkeztu dira.

Epaimahaikideek, Saria eta Akzesita ematea erabaki dute eta beraz, bi lan horien egileei, araudian zehaztutako diru-saria eman zaie, 7300 € irabazleari eta 1700 € akzesita lortu duen lanaren egileari.

Azterlan Kabinetearen Zuzendaritzaren balorazioaren arabera, saritutako bi lanek Euskadiko egoera soziopolitikoaren ezagutzari ekarpen baliotsua egiten diote, eta 2015ean argitaratzen direnean, ezagutza hori gizartearen hedatzeko lagungarriak izango dira.

1.- Izenburua

2014.urteko Euskal Etxe eta Euskal Etxeen Federazioetarako diru laguntzak

2.- Araua

8/1994 LEGEA maiatzaren 27koa (EHAA Zk. 111) Euskal Autonomi Elkarkez kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko harremanetarako.

50/2008 DEKRETUA (EHAA Zk. 69/2008) martxoaren 18koa, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

2014. urteko edizioan 704.997 euro esleitu dira IV. atalerako (ekintza eta funtzionamendua) eta 40.000 euro VII. atalerako (azpiegitura). 82 eskaera jaso dira eta aurkeztutako 82 euskal etxeek jaso dute diru laguntza. 18 herrialde dira (Alemania, Argentina, Australia, Belgika, Brasil, Kanada, Txile, Txina, Kolonbia, Kuba, Espainia, Ameriketako Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Mexiko, Peru, Uruguai eta Venezuela) IV. atalerako diru laguntza jaso dutenak eta 4 (Argentina, Kanada, Mexiko eta Uruguai) VII. atalerako. Egindako euskal etxeen erregistroko azken eguneraketaren arabera 188 euskal etxe daude 25 herrialdetan bananduta.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Mundu osoan zehar dauden 82 euskal etxek gozatu dute diru laguntza programaz non diru laguntza horren kopuru handiena ekintza eta euskal etxeen funtzionamendurako izan den eta beste kopuru txikiago bat oinarritzko azpiegituretarako. Guztira 30.300 bazkide daude euskal etxe desberdinetan. Aurrekontutan jasotako aurreikuspenak ondo bete dira beraz.

1.- Izenburua

2014ean Kanpoan den Euskal Komunitateko kide diren pertsonen asistentziarako eta egoera larriko beharrezkoen erantzuteko laguntza ekonomikoa.

2.- Araua

8/1994 LEGEA maiatzaren 27koa (EHAA Zk. 111) Euskal Autonomi Elkartearen kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko harremanetarako.

222/2003 DEKRETUA (EHAA 198 zbk., urriaren 10^a) irailaren 30ekoa, zeinetan Kanpoko Euskal Komunitateko kide diren pertsonen asistentziarako eta egoera larriko beharrezkoen erantzuteko prestazio ekonomikoen erregimena arautzen den.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, prestazio ekonomikoak ematen zaizkie Kanpoan den Euskal Komunitateko kide diren pertsonen asistentziarako eta egoera larriko beharrezkoen erantzuteko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Argentina, Txile, Kolonbia, Kuba, Uruguai eta Venezuelako 86 familia unitate izan dira 2014-ko deialdiko 202.000 €-en esleipendun.

Baliabide ekonomiko ezak sortutako egoera sozial larriez gain, asistentziarako- mediku egoerak izan dira pertsonok laguntzak eskatzera eraman dituztenak.

Aurrekontutan jasotako aurreikuspenak ondo bete dira beraz.

1.- Izenburua

GAZTEMUNDU 2014.

2.- Araua

8/1994 LEGEA maiatzaren 27koa (EHAA Zk. 111) Euskal Autonomi Elkarteaz kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko harremanetarako.

316/2003 DEKRETUA (EHAA Zk. 8, urtarrilaren 14koa) abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Gaztemundu programa euskal etxeetako gazteek Euskadin egiten duten egonaldia da Euskadiko gaur egungo errealitatera hurbiltzeko eta etorkizun batean hori euskal etxeetara zabaltzeko. 2014.urtean 80.000 euroko aurrekontua izan zuen programak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014.urteko Gaztemundu edizioko gaia “euskal dantzak” izan da. Edizio honen helburua munduan zehar dauden euskal etxeetako dantza taldeetako arduradunei kalitatezko formakuntza ematea izan da. 2014.urteko edizioa Donostian kokatu da baina beste euskal lurralde batzuetara ere zabaldu da. Partehartzaileen artean 15 Argentinatik, 6 Estatu Batuetatik, 2 Txiletik, 1 Espainiatik eta 1 Uruguatik etorri dira.

Guztira 25 gazte izan dira gaian adituak direnen eskutik klaseak jaso dituztenak. Aurrekontutan jasotako aurreikuspenak oso ondo bete dira beraz.

1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak.

2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko urriaren 1ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta gainerako tokiko erakundeei laguntzak ematea giza eskubideen, bakearen eta bizikidetzaren arloan programak eta ekimenak egin ditzaten.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 76 proiektu diruz lagundu dira; proiektuok 37 udalerritakoak dira, 3.000 biztanle inguru hartzen dutenak.

1.- Izenburua

Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzak.

2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko urriaren 1ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan, memoria historikoa eta balio demokratikoak berreskuratu, zabaldu eta ezagutzeko proiektuak zein 1936-1977 aldian demokrasiaren eta askatasunaren alde egindako lana zabaldu eta ezagutzeko proiektuak egiteko laguntzak ematea pertsona juridiko pribatu eta irabazi-asmorik gabekoei.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 61 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak. Proiektuok 33 elkarterenak ziren, eta, gutxi gorabehera, 3.000 hartzaile izan dituzte.

1.- Izenburua

Terrorismoaren biktimei arreta eta babesa ematea bultzatzen duten erakundeentzako diru-laguntzak.

2.- Araua

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 22koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarreentzako laguntzak arautzen dituena.

EBAZPENA, 2014ko urriaren 20koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarreentzako 2014. urteko laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntzen programen azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko programaren aplikazio-eremuarekin zerikusia duten antolakunde pribatuen proiektuak eta jarduerak sustatzea. Kasu honetan, eta antolakunde horiek egin nahi duten jarduera integratzailea garatzeko dauden premia ekonomikoez jabetuta, laguntzak ezartzen dira kalte pertsonalak sortu dituzten ekintza terroristen biktimei laguntza, babes humanoa eta laguntza psikosoziala emateko jarduerak sustatzeko, argiro lehenetsiz ohiko laguntza, laguntza psikosozial eta morala, talde-terapiak, eta abarretatik bereizten diren antolakundearen programak eta jarduerak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 45 proiektu diruz lagundu dira, 20 elkartek aurkeztuak, eta 290.000 euro banatu dira. Dekretu arautzaile berri bat tramitatzen ari da.

1.- Izenburua

ELKARREKIN BONUEN PROGRAMA.

2.- Araua

DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 23koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2014ko deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2014ko urriaren 1ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, tokiko bizikidetzaren arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2014ko deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2014ko urriaren 7koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinak Elkarrekin Bonuen Programaren deialdia egiten baitu, herritarren parte-hartzearen arlorako.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Elkarrekin bono programa bakearen, giza eskubideen eta biolentzia ezaren kultura sustatzean datza.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 109 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak. Proiektuok 23 elkarterenak ziren, eta, gutxi gorabehera, 3.000 hartzaile izan dituzte.

1.- Izenburua

Diru-laguntzak bakearen, bizikidetzaren eta giza-eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte-mugimenduei.

2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 21ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte-mugimenduei laguntzak emateko deialdia.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen helburua da diru-laguntzak ematea pertsona juridiko pribatu irabazi-asmorik gabeei, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatu ditzaten gure autonomia-erkidegoan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 163 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 73 erakundek aurkeztu dituzte. Diruz lagundutako jarduerak 5.000 inguru izan dira.

1.- Izenburua

Terrorismoaren biktimentzako laguntzen programa diruz laguntzea.

2.- Araua

290/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Terrorismoaren biktimentzako laguntzen programaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan izandako ekintza terroristen biktimek -pertsona fisikoak zein juridikoak- nozitutako kalteak -pertsonalak zein materialak- leuntzea. Terrorismoa nozitu duten pertsonak zenbait laguntza publiko edo pribatu eskuratzeko eskubidea dute, eta laguntza horiek eskuratzen lagundu nahi zaie haren bidez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an, ekintza terroristen ondorioz planteatutako premiei erantzun zaie.

Urte horretan, kalte materialen gaineko 10 espediente izapidetu dira.

Kalte pertsonalei buruzko espediente hauek izapidetu dira: 10 lan-arloko laguntzekoak, 9 laguntza psikologikokoak, 18 ikasteko laguntzekoak, beketakoak, ofizialak ez diren ikasketetako tasen salbuespenekoak eta espediente akademikoak lekuz aldatzekoak, 6 espediente etxebizitza-arloan laguntzekoak eta protesi-ezarpen bati buruzko bat; gainera, beste 33 espediente Madrilera bidali dira 29/2011 Elkartasunaren Legea eta /edo terrorismoaren biktimentzako aparteko pentsioa aplikatzeko.

Biktimek, biktimen elkarteek eta indar politikoez aitortu dute programaren eragina eta balioa.

Programak duen balioa eta lortutako harrera ona egiaztatu da terrorismoaren biktimei egindako 80 bisita pertsonaletan, biktima-taldeekin izandako 25 topaketetan, erakunde sozial, elkarte eta alderdi politikoez izandako 68 bileretan eta egindako 250 telefono-dei baino gehiagotan.